

Jaiak balira bezala, ospatzeko gogoz

Andoaingo Santa Krutz Jai Batzordeak, hainbat elkarte eta eragileekin elkarlanean, apirilaren 30etik maiatzaren 3ra bitarteko egitaraua osatu du. 277



Gora Santakrutzak

LI
Arropa eta osagarriak

Kale Nagusia 6
Andoain
Tel. 943591224



ORMENDI & KIROLAK

Gauden egoera honetan, eskaerak whatsapp edo facebook bidez egin ditzakezue

943 59 18 06

aukera berria duzue
eskaera egin!

Kale Berria, 2. ANDOAIN - ormendikirolak@euskalnet.net



BULEGOTIK

JON ANDER UBEDA
ZUZENDARIA

Energia eraldatzailea

Jaiak iristear direnean, Aiurrikoontzat iazkoa zeinen ederra izan zen etorri zait burura egun hauetan. Jaiei hasiera emateko ohorea izan genuen, eta horren harira lankideak eta lankide ohiak afari baten bueltan elkartu ginen. Beharrezkoa da jaiak, eguneroko betebeharretatik askatzeko. Etiket bizi beharko ditugu aurtan, ez dago besterik.

Jai Batzordearekin elkarlanean, jaietan murgiltzeko ahaleginean bat egitea erabaki dugu. Lankide eta laguntzaileak dena emateko prest ikusten ditut. Argazkiak, bideoak..., Aiurri.eus webgunean topatuko gaituzue. Zaudeten leiho, balkoi edo terrazatik zaudetela, gora Andoain eta gora Santakruzak!



Zumeatarrakoentzat aurtengo jaiak bereziak ziren, elkarteak sortu zeneko 50 urte betetzen baitira aurtan. AIURRI

Ez ohiko egoerara egokitutako jaiak

KORONABIRUSA Jaiak bertan behera geratu zirela jakin eta berehala, txarrenari onena ateratzeko prest agertu dira auzotar eta eragile ugari. Jai batzordeak ekitaldiz beteriko egitarau alternatiboa prestatu du. Etxean bada ere, festa egingo da

Erredakzioa ANDOAIN

Jai Batzordearen adierazpenaren zain zegoen herriaren zati handi bat, Aste Santuko egun horietan. Ez zen ezusterik izan, jaiak ospatzea ezinezkoa zela jakina baitzen. Baina bada itxaropenari leihoa irekitzen dionik, eta jaiak ohikoan bezala ez zirela ospatuko adierazi zutenean bat baino gehiago zapuztuta geratu zen. Panorama zail honetan festazaleek ere etxean geratu behar dute.

Jai Batzordeak, ordea, ez du etsi nahi izan eta txarrenari onena atera nahi izan dio. Ikusgarria da egun hauetan hainbat eragile eta sustatzaileen artean jaiari eusteko erakutsi duten borondatea. Irudimenarekin, jaiak balira bezala biziko gara apirilaren 30etik maiatzaren 3ra.

Esperientzia berria da, eta asteburuan zer gertatuko den ikusteke dago. Santelmoak ospatu berri dira Zumaian, eta han festazaleek ez dute hutsik egin. Leihoz leiho, balkoitik balkoira eta pantailaz pantaila jaiak gozatu dute. Andoainen ere antzekoa gertatuko da, ziur-ziur.

GAZTANAGA
SAGARDOTEGIA

Irurain etxea
Buruntza auzoa
ANDOAIN
943 59 19 68
www.sidreriagaztanaga.com

SALDIAS
ARRANDEGIA

Ondo pasa festetan!

ZUMEA KALEA, 5
ANDOAIN
943 590 704

MIZPIRADI
TOLARE SAGARDOTEGIA

Mizpiradi baserria
Leizotz auzoa - ANDOAIN
943 593 954

Xixori
BELARDENDAK ANDOAINEN

Txitibar, 4
943 245 023

Eskola kalea, 3
943 590 199

Sevende
Niglasinen erakunde ezberdina

www.sevendeya.es
Kaleberria, 11. Andoain. 943 0579 04 / 609 4150 52

Etxebizitza salgai edukitzeaz nekatuta?

T'INDOKI
TABERNA

J A T E
T X E A
T A B E
R N A

ONDO
PASA
FESTETAN

KALE NAGUSIA, 55
20140 ANDOAIN
TEL.: 943 592 954

Aurtengo jaiak, balkoitik balkoira

EGITARAUA Balkoi eta leihoen lehiaketarako, kuadrillen eguneko bazkarirako, pregoi ezberdinetarako eta jaien edozein hitzordurako bidal ezazu argazkia edo bideoa Aiurriko 619 163 537 whatsapp telefono zenbakira, eta jaietan zehar zabalduko dugu



BULEGOTIK

FERNANDA IRAZU
KOMERTZIALA

Merkatari eta ostalarien alde

Kaleari bizitza ematen dio merkataritzak. Haiek gabe gizarte bizitza oso tristea litzateke. Egoera zaila bazen, Koronabirusak sektore osoa kinka larrian utzi du.

Komertzialki, hedabideentzat galera handia da jairik ez egitea. Baina ez dugu hain erraz etsiko. Aste honetako Aiurriin publizitate ugari dago. Ohikoan Aiurriin publizitatea egiten zuten bezeroenak dira. Askoren negozioak itxita egonik ere, euren promozioa egiten jarraituko dugula erabaki dugu.

Iragarki hauek dohainik egitea eskaini diegu. Egoera ona zenean gure alboan izan zirelako. Orain, aro zail honetan, euren alboan izan nahi dugulako.

Ondo pasa "jaietan"!

APIRILAK 30

OSTEGUNA

- 16:00** Haur pregoia.
- 16:30** Txokolatada, sukaldaritza tailerra.
- 19:30** Pregoaia.
- 19:45** Musika balkoi eta leihoe-tan.
- 19:45** Balkoi eta leihoen apain-keta lehiaketa. Erabili Santa Krutzetako zapiak, bluxa, globoak jaietan zehar.
- 21:00** Musika emanaldiak Andoingo musikarien eskutik.

MAIATZAK 1

OSTIRALA

- 08:00** Gautxorien streaminga.
- 11:00** Haur krosa. Eskulan tailerra eta beroketak.
- 11:30** Bizikleta festa. Bideoa eta haur erronka.
- 12:00** Txalaparta emanaldia.
- 12:30** Katramila Show antzerkia.
- 13:00** Udal Musika Banda.
- 14:00** Auzo bazkaria.
- 17:00** Bertso saioa. Emanaldia
- 18:00** Kanta-zerrenda morea: Non ote dago? Jolasa.
- 19:00** Magia saioa.
- 21:00** Kontzertua: Capsula.

MAIATZAK 2

LARUNBATA

- 11:00** Kuadrillen arteko jolasak internet bidez.
- 12:00** Plaza dantzak. Euskal dantza ikastaroa.
- 13:00** Urki dantza taldearen emanaldia.
- 14:30** Kuadrillen bazkaria.
- 17:00** Haurrentzako tailerrak. Ipuin kontalaria, aurpegi margoketa, musika instrumentuak etab.
- 18:30** DJ Bullen eskutik musika festa.

MAIATZAK 3

IGANDEA

- 11:00** Ikurrinaren jaitsiera. Ikurrina balkoian jarri.
- 11:15** Ezpata dantzaren emanaldia.
- 11:30** Txistularien emanaldia.
- 12:00** Danborrada. Danbor hotsak balkoi guztietatik jartzea eskatzen da.
- 12:30** Txakolin dastaketa, egin topa zuen balkoietan.
- 16:00** Kantu Jiraren emanaldia.
- 17:00** Trikitilarien emanaldia.
- 18:00** Pintxo lehiaketa.
- 20:00** Festen itxiera.

www.txapelasybordados.com
www.txapelabordatuak.eus

Keinu

Kale Nagusia, 12.
ANDOAIN. 637 283 224
keinuandoain@gmail.com

BRIKO GOROS

Gorostidi Burdindegia

Orain ere zugandik gertu.
Etxera eramaten dizugu.

620 881 472

TXITIBAR

Ondo pasa Santakrutzetan!

Zumea plaza, 7 behea
ANDOAIN - 943 570 492
www.txitibar.com

TXALAKA
JATETXEA

Ondo pasa Santakrutzetan!

Zumea 36
ANDOAIN
943 591 604
665 748 749

943 593 627
Ondarreta kalea, 9-behea
ANDOAIN

Plater konbinatuak
Bokatak
Pintxoak

Ondo pasa jaietan!

Ondarreta

KUKUTEI
HARATEGIA - URDAITEGIA

Kale Nagusia, 59 ANDOAIN 943 593 152

Hautatutako produktuak
ONDO PASA JAIETAN

Gora Santakrutzak

BELKOAIN

Fisioterapia zerbitzua
Saloa Audikano Ansa
Aitor Sarasola Asfigarraga

Eskola kalea, 6-atzealdea
8. lokala. Andoain
943 591 202



BULEGOTIK

MIKEL ARBERAS
KAZETARIA

Jaiak etxean ospatu beharra

Urteko festarik hoberena dela esaten dudanean, ez da hitzontzikeria, errealitatea da. Gazteen eta ez horren gazteen izenean hitz egin dezaket, urte osoa egoten garela Santakrutzen esperoan. Tamalez, aurrez ezin izango ditugu ohiko jaiak ospatu, baina Jai Batzordeak izugarritzko lana egin du modu batera edo bestera jaiak etxetik ospatu ahal izateko.

Gazteok ezkor gaude Santakrutzak eta Kuadrillen Eguna ohiko erara ospatuko ez direlako eta normala da, baina gauza bat esango dut; etxetik ere ondo pasa eta gauza handiak egin daitezke. Izan gaitezen inguruko herrien eredu, inguruko herrien inbidi. Nik behintzat jaiak etxetik ospatuko ditut, ez dakit zuek. Gora Santakrutzak!



Jai Batzordeko kideak eta laguntzaileak 2016ko jaietan, txakoli dastaketaren ondoren ateratako argazkian. AIURRI

"Programa itxurosoa egitea lortu dugu"

JAI BATZORDEA Olatz Esnal, Aitor Ibarguren eta Ander Guerrero Santa Krutz Jai Batzordeko kideak dira. Jaiak egin ala ez egin, azken asteotako zurrumbilo zail horretatik airoso atera dira

Erredakzioa ANDOAIN

Jai Batzordeko hiru kideen arteko inkesta, jaiak iristear direnean. Aiurrirako, gainera, jaietako blusa jantzita agertu dira.

GALDERAK

- 1 Energia ez da galdu, eraldatu baizik. A zer nolako egitaraua prestatu duzuen! Zein balorazio egiten duzu zuk, egitaraua ikusita?
- 2 Jaia gerturatzen ari da. Zer ari zarete inguruan nabaritzen? Parte hartze handia espero duzue?
- 3 Zuk zeuk zein ekitaldi nabarmen-duko zenuke? Zer iristeko edo ikusteko gogoz zaude?
- 4 Zer esango zenieke festazaleei?

OLATZ ESNAL

1 Ni neu harrituta nago egitarau oparoa egitea lortu dugulako. Hasiera hasiera, etxetik zerbait egitea erabaki genuenean, hiruzpalau gauza izango zirela aurrikusi genuen. Gerora, eta herriko eragileekin hitz eginda, programa polita edo itxurosoa egitea lortu dugu. Eta euren ekarpenei esker lortu da.

Gora Santakrutzak!
943 593 777
Zumea 18, ANDOAIN

DANENA
Ondo pasa Santakrutzetan!
Eguneko menua
Plater konbinatuak
Bokatak
Zumea, 22 - Tel.: 943 590 210 - Andoain

Cambridgeko azterketen prestakuntzarako zentro homologatua.
Prestakuntza trinkoa: Cambridgeko azterketak ekainean eta uztaillean.
2020-21 ikasturterako matrikulazioa zabalik
Tolkien, ingelesaren sinonimo Andoain
Ondarreta 7, behea. ANDOAIN. 943 300 839
www.andoainenglish.com

Mendi
OPTIKA
MULTIOPTICAS
Zumea Kalea, 22
ANDOAIN
943 30 04 47
Ondo pasa Santakrutzetan


Gabilondo
AHOLKULARITZA
Gora Santakrutzak!
Kale berria, 1-behea. ANDOAIN
Tel./Faxe: 943 303 025
asesoriagabilondo@yahoo.es



Olatz Esnal Jai Batzordeko kidea.



Aitor Ibarguren Jai Batzordeko kidea.



Ander Guerrero Jai Batzordeko kidea.

- 2** Lagun artean eta jai batzorde kideen artean gogotsu gaude. Pena ere bai, izugarritzko pena, ez direlako ohiko jaiak izango. Nik uste dut jendeak parte hartuko duela, herritar askok Santakrutzak gogoko duelako. Oso polita aterako da.
- 3** Gautxorien bide-odeiarekin jakinminez nago. Eta, bestela, Santa Krutz egunean, txakolin dastaketa izan beharko lukeen horretan topa egin edo danbo-

rra jotzeko gogoia ere badaukat. Eta pregoia, noski, polita izango da.

4 Santakrutzak etxetik biziko ditugu, eta oso ondo pasako dugu. Eta hurrengo urtean kalera irteten garenean indar eta gogo askoz gehiagorekin biziko ditugula. Bitartean, datorren astean etxetik oso ondo pasa. Blusak eta zapiak ondo prestatu eta, ahalik eta ondoen pasa. Gora Santakrutzak!

AITOR IBARGUREN


- 1** Oso balorazio positiboa, egia esan. Pertsonalki, ezkor nengoen, baina eragileak animatzen ari zirela ikustea bultzada handia izan da guretzat.
- 2** Alde batetik, pena sumatzen dut inguruko jendearengan, normala den bezala. Bestalde, gogoia. Parte hartze handia egongo dela uste dut, bi aldeetatik: Lehenik, eragile eta jendearen aldetik; bigarrenik,

- horrenbeste jende ezberdin eta horrenbeste eragile ezberdin lotuta, horrek sortuko duen ikusmina handia izango da eta uste dut herritarrek ere ondo erantzungo dutela.
- 3** Bertso saioa nabarmenduko nuke. Zuzenean egingo da, eta andoaindarrez osatuta. Batzuk esperientzia gehiago dute, plazan kantatzen. Beste batzuk bertso eskolan bakarrik arituko dira.

- 4** Aurten Santakrutzak ez dira betiko egoeran egingo, baina horrek ez digu festaz gozatzeko gogorik kendu behar. Ea guztion artean zerbait txukuna ateratzen den.

ANDER GUERRERO

- 1** Egitaraua ikusita, balorazioa oso baikorra da. Eskerrak eman nahi dizkiet parte hartu duten guztiei, euren inplikaziorik gabe ezinezkoa litzatekeelako.
- 2** Konturatu gara ez dugula denbora asko eduki, antolatu dugun egitaraua jendartean zabaltzeko garaian. Baina informatzen joango gara eta herritarrengan gogoia piztuz joango da.
- 3** Espero degu parte hartze handia izatea. Esfortzua bakoitzak bere kale inguruan zentratzen badu jendeak gustura parte hartuko duela espero dugu.
- 4** Festazaleei, lehenik eta behin, animo asko! Egun hauek nahiko bereziak eta gogorak izaten ari direlako. Inork ez zuen sekula bizi horrelako egoerarik eta egun berezi hauek goxatzeko eta animatzeko asmoarekin antolatu dira. Gora Santakrutzak!





BULEGOTIK

MADDI TRUTXUELO
MAKETATZAILEAZoom
txupinazoa

Ostegun honetan, ohikoan bezala, pintxo-potea egingo dugu lagunartean. Telematikoa izango da, nola bestela! Elkarren berri izateko aukera praktikoa da, pantailatik pantailara egiten dena. Horixe da behar beharrezkoa den distantzia fisikoa gainditzeko dugun alternatiba. Ez dira betiko garai onenak, dio abestiak. Pasa ditugu garai zailak, eta egun hauetan bizitzen ari garenak ere arrastoa utziko du luzaroan. Saia gaitezen, halere, gozatzen. Bizitza bera, lagunartea, herria... Nola edo hala, jaiei gure lekutxo eskaini beharko genioke. Ez gaitezen ezkortasunean kateatu. Nola edo hala, saia zaitezte jaia bizitzen eta gozatzen. Ondo pasa! Eta bidali argazkiak Aiurrira :) Gora Santakruzak!



Urki dantza taldearen emanaldia, 2014an. Aiurri.eus webgunean aurreko urteetako argazkiak ikusgai izango dira, jaietan. AIURRI

Auzoko etxe guztietara iritsiko den astekaria

AIURRI Aurtengoan ez da auzoko jaietako eskuorrik argitaratuko, eta horren ordeztu etxebizitza horietara guztietara Aiurri astekariak landutako informazioa zabalduko da. Besteak beste, egitaraua eta Jai Batzordeari egindako elkarrizketa aurki daitezke bertan

Erredakzioa AIURRI

Aiurri astekaria ez da argitaratzeaz utzi, Koronabirusaren krisia piztu zenetik. Banaketa eraldatuz joan zen, eta azken asteetan ohiko banaketa sistemara itzuli gara. Harpidedunek etxeko buzoian jasotzen dituzte astekaria eta hamaboskaria. Ohikoan, kioskoetan ere astekari gutxi batzuk banatu ohi dira. Harpidetza sustatzeko amu modukoa da.

Astekari hau jaien eremuko etxebizitza guztietara iritsiko da, helburu bikoitza betez. Jai Batzordearekin lankidetzan, jai programa etxe guztietara iristea bermatzea. Modu horretan apirilaren 30eko data duen astekaria Kale Nagusia, Eskola kalean, Kaleberrian, Juan Bautista Erro kalean, Zumea kalean, Zumea plazan, Aingurasutegi kalean, Belabi kalean eta Txitibar plazan banatuko da.

Jai Batzordeari eginiko elkarrizketa edota jai egitarau alternatiboa bertan topatuko dute.

Aiurriko harpidedun ez denarentzat, aurrerantzean aldizkari-ko harpidedun egiteko aukera bikaina da.

Urrats
inprimategia

ETXEKO LANAK INPRIMATZEKO
688 618 548
WHATSAPP

www.urratsinprimategia.com
Zumea kalea, 19. Andoain.
urrats2010

AZKAIN
MOTOAK

Moterrorako behar duzun guztia
Motere artxeriotak
Mota guztietako Scooterrak
Salmenta eta konposaketak
Quad ATV modelo guztiak

PREZIO INTERESSARRAK

Industria zona, Pol. 28-4º12 - 20160 Andoain
Tel.: 943 391 413 / Fax: 943 398 436
www.azkainmota.com / azkainmota@azkainmota.com

urkiola
TABERNA

Etorri eta dasta itzazu gure tabernako pintxo goxoak!

Kale Nagusia, 19 - Andoain
943 32 56 58

"Ondo pasa Santakrutzetan!"

ARANBURU
Gora Santakruzak!

Artekaritza
Aseguruak
Aholkularitza

AXA

Kaleberria 6. ANDOAIN
943 590 814
artekaritza@agencia. axa-seguros.es

Amantegi
mertzeria

Denda fixetia dagoenez,
edozer behar izanez gero,
deitu beldurrik gabe
telefono honetara

660 869 711

Zabala
Ordukari Bitxitegia

Ondo pasa Santakrutzetan!

Kale Nagusia, 14
943 593 745
Andoain

Gudari enparantza, 5
943 332 341
Hernani

Gora Santakruzak!

Amama Klaudia
GASTROBENTA - DASTATZE - DEKORAZIO ETA ARTEA

GOSARIAK - EGUNEKO MENUA - HANBURGESAK
PRESTATUTAKO JAKIAK - BOKATAK - Harategi-Urdaitegia

Zumea plaza, 5 - behe, Andoain
943 031 615 - 607 327 432. www.amamaklaudia.com



2017ko Haur pregoia. Aurtengo haurren pregoia berezia izango da, Aiurri.eus guneak bideo bidez zabalduko duena. AIURRI

Jaietan parte hartze aktiboa izateko deialdia

PARTE HARTZEA Konfinamendua gainditzeko modu eraginkorra gailu teknologikoak erabiltzea da. Jaian parte hartzeko modua izan daiteke argazkiak eta bideoak partekatzea. Aiurrira bidaliz gero, jasotakoak Aiurri.eus bidez zabalduko ditugu

Parte hartzeko hitzorduak

Balkoi lehiaketa.

Ederrenari saria emango dio Jai Batzordeak. 619 163 537 telefono zenbakira bidalitako argazkien artean egingo da aukeraketa.

Haur pregoia. Bidali txikien eta gaztekoen argazkia: Marraskia, esaldia... nahi duzue!

Pregoa. "Gora Santakruzak!" esanez grabatu bideoa.

Kuadrilen eguna. Bidali bazkariko argazkia.

Santa Krutz eguna.

Aiurrikoak kalez kale eta plazaz plaza ibiliko dira, argazkiak eginez.

Pintxo lehiaketa.

Argazkia bidali whatsapp bidez.

BIDALI ARGAZKIAK ETA BIDEOAK 619 163 537 WHATSAPP ZENBAKIRA



BULEGOTIK

XABIER LASA
KAZETARIA

Jaian jarraipen berezia sarean

Artean ezagutzen ez genuen moduan ospatuko dira Santakruzak. Jai Batzordeak, irudimenaz gainezka, kontrako egoera iraultzen jakin du eta, horrenbestez, kazetari gisa jarraipena egitera derrigortuta gaude. Eta zer arraio! Gogo handiaz ekingo diogu dagokigun lanari. Nola? Burua eta begirada goruntz luzatuta, leiho edo balkoieta kamara enfokatur.

Bitartekari lanak betetzeko asmoz ibiliko gara, umil-umil. Auzotarrak, nor bere etxetik, Santakruzak nola ari diren ospatzen jasotzen saiatuko gara. Asmo bakarrekin: Munduak jakin dezan Andoainen ere badirela herritarrak, dena kontra edukita ere, jaia bihotzez sentitzen eta ospatzen badakitenak.

Gora Santakruzak!

Fauri Beltz

Taberna

Kale berria 9
943 59 35 49

Ernaitza liburutegia

Liburu, joku hezitzaile eta oparietan aukera zabala

Ondo pasa Santakruzetan!

Zumea, 9 ANDOAIN. 943 592 459 - ernaitza@yahoo.com

Pepi LENTZERIA

Ondo pasa festetan

Eskola kalea 6
ANDOAIN
943 59 08 99

ILEAPAINDEGI ETA ESTETIKA

adats

Belabi kalea, 10 behea
ANDOAIN. 943 570 796

Dendari txikiak eta hostalariak

S2 SALKIN

bentatik bentara

LASTER IKUSIKO DUGU ELKARI

AMABIKO ATEA BERRIZ TREKITZEN DENERAKO

ERRESERBAK HARTUKO DITUGU

AMABI

tratu eta garaje jantziak

0-16 urte

688 757 642



Urnieta, Alemania eta Peru bideo deia berean. Hots, Andoni Urbistondo, Ignacio Tanco eta David Segurado. AIURRI

Pandemia buruan, eta ibili munduan!

Ignacio Tanco eta David Segurado urnietarrek Covid-19a nola bizitzen ari diren azaldu digute. Liman dago Segurado, Perun; Darmstadt-en Tanco, Alemanian; bietan egoera Euskal Herrian baino hobea da

Andoni Urbistondo URNIETA

Espazioa eta sateliteek sortzen dioten miresmenak Frankfurt ondora eraman zuen Ignacio Tanco urnietarra aspaldi. Darmstadt hirira, hain zuzen ere. Han dago Europako Espazio Agentzia, eta han harrapatu zuen gizateria dantzan jarri duen pandemia. David Segurado abenturak, ezezaguna dena ezagutzeko grinak eraman zuen Perura, Amazoniara. Han oihaneko hainbat komunitateren komunikazio sareak garatzen aritzen da, baina baita espedizioetako logisti-

ka kontuak antolatzen ere. Horretan ari zen Arequipa inguruko sumendietan, Peru hegoaldean, Frantzia eta Italiako ekoizleekin, etxeratze agindua berri izan zutenean. Euren bizitokian pandemiak utzitako argazkia egin digute, baina baita alde onak nabarmendu. Izan ere, Urnietarekin, familia eta lagunekin zeukaten harremana handitu egin da bideo deien bitartez.

Urnietan martxoaren 13an jarri zen indarrean etxeratze agindua, konfinamentua. Ale-

manian martxoaren 22an. Bertako etxeratze arauak bereziak dira, Ignacio Tancoren ahotan: “Irten zaitezke kalera, etxeratzea borondatezkoa da. Etxe berean bizi diren herritarrek kalera atera daitezke elkarrekin, eta hala ez bada, gehienez bi lagun

IGNACIO TANCOK ETA DAVID SEGURADOK PANDEMIAK EUREN BIZITOKIAN UTZITAKO ARGAZKIA EGIN DUTE

irten daitezke batera”. Irten bai, baina nora? “Alemanian ere dendak, tabernak eta beste itxita daude. Supermerkatuak, gasolindegia eta beste daude irekita, baina paseatzeaz gain ez dago zeregin handirik”. Ignaciok eta bere familiak etxetik gertu halako baso bat daukate, baina hara hiri osoa joaten omen da. “Polizia zaintza lanetan aritzen da, jendeak picnic-a ez egiteko. Jendearen arteko kontaktua kontrolatzen dute, eta adibidez, lagunekin garagardo batzuk edateko ezin zara irten”.

Perun egoera zorrotzagoa da, “Urnietan baino gogorxeagoa”, David Seguradoren hitzetan. Perun familia unitate bakoitzeko herritar bakarra irten daiteke etxetik, elikagaiak erosi

edo farmaziara joateko. Herri-tarrek errespetatzen omen dituzte arauak, “baina hemen jende asko egunetik egunera bizi da, ez dago lan sistema araututik, kontraturik eta beste. Eta aurrezkiak ere eskasak dira. Jendeak, azkenean, atera egin behar du, gaixotzearen arriskupean jan egin behar baitu. Logikoa denez, gaitza hedatzeko proportzio handiagoa dago auzo txiroenetan. Alkoholen kontsumoak ere sarraski handiak eragiten ditu, kalean erosten diren edariak supermerkatuetakoak baino askoz merkeagoak direlako. Eta supermerkatuan hiru orduko ilara egin behar duzu, polizien kontrolpe zorrotzarekin”. David bera bi aldiz ateratzen da aste-ko, elikagai bila: “Bat merkatu demagun auzotarrera berdurak, frutak, elikagai freskoak erostera, eta bestea supermerkatu ofizialera, abarroteak eta beste erostera”. Perun maskaratxoarekin atera behar dute kalera derrigor, “150 euroko isuna jartzen dizute eramaten ez baduzu”.

Alemanian ez da eraman behar, lanpostuan izan ezik.



Ignacio Tanco eta David Segurado Urnietara etortzen dira, tarteka. Argazkiak artxibokoak dira, Urnietara etorri zirenekoak. AIURRI

Ignacio etxetik ari da lanean, “lanpostura maiatzaren 4an bueltatuko naizela uste dut”. Seme alabak ere klase birtualak jasotzen aritu dira, eta laurak etxean daude, “nahiko ondo. Nik iraungo nuke lasai asko aste batzuk gehiago etxetik lan egiten, gustura ari naiz”. Alemanian industria mantendu dute irekita, bakarrik. David egun batean Liman dago, baina hurrengoak non izango den, ezin jakin. Oihanean, mendian lan egitearen keriak. Perun etxeratze-agindua martxoaren 16an eman zuen Gobernuak, baina bera martxoaren 31n iritsi zen Limara: “Mendian geunden, sare eskasarekin, eta zibilizaziora jaitsi eta gero Frantziako Enbaxadaren bitartez lortu genuen hegaldia Limaraino”. Odisea bat, David bera Liman bizi delako eta hango militarrek konbentzitu behar izan zituelako berak ez zuela Espainiara bueltaraztea nahi, pandemiaren erruz. “Nola edo hala lortu nuen. Nire bezeroak hegazkinean gendarmekin zeuden bitartean, ni aireportutik ezkutuan ihes egin. Perun etxeratze ordua dugu, ezin da kalera atera arratseko seiretatik goizaldeko bostak arte, eta ni seiak izateko hamar minutu falta zirela iritsi nintzen nire etxera, pentsa”. Azken asteetan Linn Aerospace Peru bere enpresako gauzak eta espedizio berrietarako logistika lanetan dago murgildua David, etxetik.

Urnietan baino egoera hobea

Bai Alemanian, baita Perun ere, pandemiak eragin dituen kalteak Euskal Herrian baino apalagoak dira, proportzioan. Eta horren

zergatia azaldu digute bi urnietarrek. Arrazoiak aski ezberdinak baitira bi kasuetan. Tanco: “Ez nuke esango preseski gauzak Espainian baino hobeto egin direlako izan denik. Faktore metaketa bat dago, Alemaniaren alde egin duten faktore batzuk, eta aldiz, Espainia asko zigortu dutenak”. Arlo sozial edo kulturalaz mintzo da, aurrena. “Euskadin joera handia dauka gu kalean egoteko lagunekin, kale jendea gara, tabernetan txikiteoa edo pintxo potea izan, elkarte gastronomikoetako bazkariak...”. Alemanian jende batuketak askoz mugatuagoak dira, eta horrek transmisio katea asko mantsotu du han.

Bigarren faktore bat, interesgarria, populazioaren banaketa: “Espainian jende asko bizi da hiri gutxi batzuetan, Madrilen edo Bartzelonan. Alemanian ezberdina da, hiri handienak, Berlinek, hiru milioi eta erdi biztanle ditu. Madrilen zortzi bizi dira. Zortzi milioi lagunentzako erietxe kopuru egokia edukitzea ez da erraza. Hemen pandemiak ez dio aurrea hartu osasungintzari, eta Espainian itxura dauka hala gertatu dela. Espainian biztanleria gutxiko lur eremu handiak daude, Alemanian ez. NI Darmstadt-en bizi naiz, 100.000 biztanle, eta lau erietxe ditugu. Hemen gaixotzen den jendeak ez du Frankfurttera joan behar erietxera (Darmstadtetik 35 kilometro). Madrilak, aldiz, inguruko eskualde askotako gaixoak artatu behar ditu”.

Eta hirugarren faktore bat, akaso garrantzitsua: osasun baliabideak: “Alemania askoz herrialde aberatsagoa da, Espai-

niako ZIU edo Zainketa Intentsiboen Unitateko ohe kopurua laukoizten du”. Test famatuen kontuan ere nabardura garrantzitsua egiten du Tancok: “Gauza bat da test-ak egiteko gaitasuna edukitzea, eta bestea, test horiek aztertuko dituzten laborategi prestatuak edukitzea. Oker ez banago, Espainia osoan 20 laborategi baino gutxiago daude. Alemanian 170 dauzkagu. Gurean test masiboak egin dira. Espainian ezin izan dute hori egin, laborategi mailan ez dagoelako Alemania bezain garatua. Espainian ez dago baliabiderik etorri den moduko pandemia larriari aurre egiteko, eta Alemanian bai. Alemanian ahal izan da, eta Espainian, aldiz, ezin izan dute”.

51.000 atxilotu, 728 hildako

Perun ere datuak harrigarriak dira, onean. 728 lagun baino ez dira hil, Euskal Herrian zendu den kopuruaren erdia. Peruk, baina, Euskal Herriko biztanle kopurua hamarkoizten du. Indar armatuek sortzen duten beldur-rean jartzen du eraginkortasunaren sorburua Seguradok: “Hemen udaltzain askorik ez dugu, Urnietan bezala, baina tankeak eta Armadako soldaduak txoko guztietan, hori uneoro. Zaintza handia da hemen, eta etxeratze-agindua betetzen ez duena kartzelara doa zuzenean. Broma gutxi Armadarekin”. Datu esanguratsu bat: Perun 728 lagun hil ditu koronabirusak (astearteko datua). Ba arauak errespetatu ez dituzten atxilotuak 51.000 dira. Atera kontuak. Gobernuak neurriak hartzeko, herriko mugak iteko Espainian

baino denbora tarte handiagoa izan duela ere nabarmentzen du Davidek. “Eta beharko, Perun osasun baliabideak benetan eskasak baitira: 505 ZIU ohe dau dela uste dut, arnas tresna artifizialekin, eta beste 200 ohe arnas tresnarik gabe (EAE 404 UZI ohe daude). Peru osoan!”.

Pandemiaren jatorriaz zabal mintzatzen da Limako urnietarra: “Harreman handia dut naturarekin, eta ziurrenik pandemia gogorrak etorriko dira. Natura ikaragarri zigortzen dugun espeziea gara, eta naturak, bere bitartekoekin, ba protesta egiten du, gizakiok garrantzitsuak ez garela gogoratuz, gure tokian jarritz. Deforestazioa gero eta handiagoa da, harreman emankorra dut biologo eta kontserbazionistekin, eta denek diote hurrengo pandemia handiak Amazonian sor litezkeela. Covid-19a bera sagu zaharren kontsumoaren ondorioa dela diote teoria batzuk...”

Etorkizunarekin ardurarik ez

Jakina da pandemiak krisi ekonomiko latza eragingo duela han eta hemen. Bi urnietarrek ez daude arduratuta. Ez momentuz: “Ez da iritsi larritzeko unea oraindik. Juice misioan ari naiz, eta satelitearen muntatze lanak etenda daude Tolosan, Frantzian. Suzia jaurtitzeko epea 2022ko maiatzaren bazen ere, litekeena da atzeratzea. Gaur-gaurkoz ezin dut esan suzia jaurti ahal izango dugun edo ez. Finantzaio publikoari dagokionez ez da arazo serioa, guk oraingo ekimena bukatu arte garatzeko finantzaioa lotua baitugu aspaldi”.

Tokian tokiko egoera

Peru:

- Populazioa: 33 milioi.
 - Lima: 9.5 milioi.
- Koronabirusa:
- Kutsatuak: 27.517.
 - Hildakoak: 720.
 - Sendatutakoak: 8.088.

Alemania:

- Populazioa: 83 milioi.
 - Darmstadt: 147.000.
- Koronabirusa:
- Kutsatuak: 157.120.
 - Hildakoak: 5.913.
 - Sendatutakoak: 112.000.

Segurado egunetik egunera bizi da, abentura zaletasuna odolean darama, eta lanbide batekin ezin baldin bada, besteren batekin bizimodua aurrera aterako dutela dio, Claudia emaztea eta Mathilde 10 hilabete haurra gogoan. “Gure bizitza plangintzak ez du bi edo hiru hilabetez harago egiten. Orain Liman gaude, ondo, lanarekin, baina batek daki hementxe neguan zer gertatuko den”. Perun turismoa oso garrantzitsua omen, eta horrek herri hartan krisi latza ekartzeko arriskua omen du.

Gauza onak ere ekarri omen dizkie pandemiak, batez ere Ignaciari: “Bideo-dei famatuak. Pandemia iritsi zen arte oso noizbehinka egiten nituen. Orain familia, lagunekin eta beste sarri aritzen naiz, eta lehen zergatik ez nuen antzekoa egiten galdetzen diot nire buruari. Gustatzen zait zailtasunean halako onurak ikustea. Ezin duzu lagunekin afaltzera irten, edo lehen bezala harremanik izan, etxean zaudelako, baina entrentenitzeko beste bide batzuk bilatzen dituzu”. Seguradok, aldiz, aspaldi bilatu zuen bideo deien altxorra, eta “etxekoei dagokionez, nire komunikazioa ez da aldatu, Liman nagoenean lasai ibiltzen naiz, eta askotan egiten ditut bideo-deiak. Lagunekin gehixeago hitz egin nahi nuke, baina hemen bakoitzak bere bizitza dauka, bere betebeharrak. Perun Urnietan baino zazpi ordu gutxiago dira, eta ez da erraza ados jartzea”.

Andoni Urbistondo URNIETA

Irurain gainetik Andoain alde-rantz, herritar askok Leizotz industria guneko bidea erabiltzen dute Andoainera joateko, Bazkardoko biribildune bihurria saihesteko. Iruraindik 300 metrora, gero eta bezero gehiago erakartzen duen gasolindegia dago. Han aritzen dira lanean Josean eta Josune bikote zarautzarra. Industria guneko langile asko erakartzen dute lan egunetan, eta herritar piloa asteburu eta igandeetan, batez ere ogi egin berria saltzen dutelako, eta elikagai sorta gero eta aberatsagoa eskaintzen dutelako. Coronavirus-ak bezero gehiago eraman dizkie dendara, baina erregai salmentak gutxitu. Borrokan segitzen dute, duintasunez irauteko asmoz.

Nor zarete?

Josean: Ni Josean, eta nire bikotea, Josune. Zarautzarrak biak, han bizi gara. Aita zena urnietarra zen, Aisa abizenekoa, baina 10 urte zituenean martxa egin zuena Urnietatik. Hiru urte beteko ditugu hemen uztailean. Lehenago Altsasun izan ginen lan berean, herrian bertan zegoen gasolindegian. Ni berez arotza naiz, 27 urtean aritutakoa jardun horretan, baina lanik gabe geratu nintzen, eta autonomo gisa lanean hasi nintzen Andoaingo denda honen antzeko gasolindegian. Josune Eroskin aritzen zen lanean, eszedentzia eskatu zuen, eta biak autonomo ginenez, batera hasi ginen Altsasun.

Josune: Borroka handia egin eta gero, gerturatzea lortu genuen, hona, Andoain eta Urnieta arteko txoko honetara, eta hor gabiltza. Altsasutik martxa egitea ez zen erraza izan, ez uste, oso harreman ona lortu baikenuen askorekin. Herritar askok pena hartu zuten.

Altsasu Zarautzetik urruti dago...

Josune: Bai, 75 kilometro joan, eta beste hainbeste etorri. Ordu eta erdi pasa egunero, errepidean. Altsasukoa gogorra izan zen, egunero hara joan eta etxera bueltatu, hilabete luzeak jairik egin gabe... Han bizitzen izan ginen urtebete, etxe txiki batean, bestela egun guztia joaten zitzaigulako. Altsasun pozik ginen, halere, jendearekin harreman ona egin baikenuen. Euskaraz mintzatzen ginenez, bageneukan bezero sare finkoa. Baina gasolindegia hau askoz

“Familia negozioa garelako etortzen da bezeroa guregana”

JOSUNE ETA JOSEAN LEIZOTZ INDUSTRIGUNEKO GASOLINDEGIKO ARDURADUNAK
Hiru urte beteko ditu Zarauzko bikoteak uztailean gasolindegiko arduradun; gero eta gusturago sentitzen dira. Denda indartu behar izan dute, erregai salmenta gutxituta



Josune eta Josean zarautzarrak dira, eta Andoain-Urnieta arteko mugako gasolindegiko arduradunak dira. AIURRI

hobea da. Etxetik 20 minutura gaudelako, noski, baina negozioaren bolumena ere hobea delako, martxa hobea dauka. **Negozioarengan ere eraginik izan al du Koronabirusak?**

Josean: Bai bai. Azken bi hilabeteetan negozioaren martxa aldatu egin da nabarmen. Hilabete gogorrak dira. Erregai salmenta ikaragarri murriztu da, baina dendarena, aldiz, nabarmen

igo, eta horri esker ba gure jor-nala eta lanpostuak mantentzeko nahikoa ematen digu.

Nolakoa da zuen negozioa?

Josean: Gu gara jabeak, frankizia gurea da, eta guk kontra-

tatzen dugu beharrezkoa dela uste dugun langile kopurua. Bost lagunekin gabiltza orain, gu eta hiru langile, lau familiak jaten dugu negozioari esker. Egin genitzakeen guk biok ordu gehiago, eta langile gutxiago kontratatu, baina beste pentsamolde bat daukagu biok. Semeak ere hazita ditugu, ikasketak bukatuta, lanean biak etxetik kanpo, eta guretzat nahikoa dena lortuta konforme gara. Gazez ere ireki genezakeen, baina pentsatzen dugu ez duela merezi. Langileen artean giro ona edukitzea funtsezkoa da bezeroaren begietara, eta gu ahalik eta langile gehien edukitzen saiatzen gara. Orain langile bat kendu behar izan dugu, lana gutxitu delako, ea ba egoera azkar konpontzen den.

Nola funtzionatzen du frankizia batek?

Josean: Gu "comisión directa" esaten zaion negozio moldean gabiltza. Saltzen dugun guztia-ren portzentaje bat poltsikoratzen dugu. Hiru diru iturri ditugu: erregaia, autoen garbiketaria eta denda, antzeko neurri edo proportzioan hirurak, nahiz eta auto garbiketarik jasozen dugun portzentajea apalagoa izan, guretzat lan gutxiago suposatzen duelako. Koronabirusarekin, garbiketako negozio bolumena zeharo jausi da, eta erregaia ere gaitzaren aurretik zenaren %30 edo izango da. Alegia, %70eko murrizketa. Dendako salmentak, aldiz, hazi egin dira, bikoiztu edo, baina baldintza horietan, muga-mugan gabiltza, egoera normala zenean baino okerrago.

Erregaiaren salmenta %70 jaitsi dela esan duzu. Koronabirusak eragindako krisiaren aurretik etor-

tzen zen kamioi kopurua, eta orain etortzen direnak alderatuz hobeto uler dezakegu jaitziera?

Josean: Ziur. Lehen astean bitan etortzen zen kamioia, gutxi-asko, eta orain azkeneko aldiz noiz etorri zen ere ez gara goratzen. Egia da azken egunetan mugimendu gehixeago nabaritzen ari garela erregai salmentan.

Eta erregaia ematen dizue moztu gehien.

Josean: Bai. Dendak lan asko ematen digu, baina etekina ez da erregaia ematen duenaren parekoa. Baina beno, pasako da. Espero. Ez dugu ERTE edo antzekorik planteatu nahi izan, guretzat langileak gurekin gustura egotea oso inportantea delako. Langileak gurekin gustura, eta bezeroak gu guztiokin gustura badaude, hobe.

Eta zer nolako martxa daramazue zuek biak?

Josean: Gu astelehenetik ostiralerara ibiltzen gara, seietatik ordu biak arte. Hori beti, baina gero ni telefonoaren baitan nago 24 ordutan: hemen geratzen direnak arazoren bat badute, hornitzailearen batek deitzen badu... Teorian ordutegi bat daukagu, baina beti guardian gaude, zer pasa. Azkena, Ertzantzak, 10 egun atzera, lapurrera egin zigutela esateko deitu zidan. Telefona eta kotxea beti prest dauzkat. Langileak ere erosoago sentitzen dira, zernahi gertatuta ere ni ordu erdian hemen nagoela jakinda.

Josune: Bezeroak ere nabaritu egiten du negozio batean giro ona dagoen edo ez, eta gu familia bat garela transmititzen saiatzen gara. Familia bat gara, onean eta txarrean, Raquel lankideak esaten duen bezala. Esan nahi dut, berak bere orduak baino bi gehiago bete behar ba-



Bertako bezeroekin harreman ona lortu dute, nagusiki euskaraz arituz. AIURRI

ditu, lana sortu delako, edo arazoren bat dagoelako, ba bete egiten ditu, eta gero guk jai hartzeko erraztasunak ematen dizkiogu. Esther beste langilea ere Extremadurakoa da, eta zubietan eta asteburu luzeetan bertara joatea gustuko duela badakigu. Aukera ematen saiatzen gara. Langileak dira, baina etxeak ere bai. Guk mesedeak egiten ditugu, guri mesedeak egiten dizkigutela. Guri ez zaigu inporta zubietan lana egitea, etxetik pauso batera bai-kaude.

Jende emana handia da dendan. Ze bezero mota etortzen da zuegan?

Josean: Errepidekoak oso gutxi. Udan akaso frantziar despistaturen bat, baina bestela, ia osorik bertakoak, Urnieta eta An-

doaingo herritarrak. Astelehenetik ostiralerara Andoaingo Leizotz, eta Urnietako Ergoien edo Erratzu industria guneetako langile asko etortzen dira, hamaiketakoaren bila, lanera sartu aurretik edo lana bukatu eta etxera bidean doazenean. Fruta dugu, berdura, oilaskoa eta haragia... Ia denetik dugu, eta jende askok nahiago du erosketak hemen azkar batean egin, supermerkatua joan eta ordubete pasa zain egotea baino. Ahalegintzen ari gara bezero mota hori erakartzen. Lau litxarkeri jarriko bagenu, ez litzateke bezerorik etorriko. Guk autoa garbitu, depositua erregaiez bete eta etxerako elikagai poltsa pare bat emango dituen bezeroa nahi genuke. Pack bat egitea. Asteazkenean

"IA DENETIK DUGU, ETA JENDE ASKOK NAHIAGO DU EROSKETAK HEMEN AZKAR BATEAN EGIN"

"IGANDEETAKO IKARAGARRIA IZATEN DA. LABEA DUGU, ETA OGI PILOA SALTZEN DA"

langileak, eta asteburuetan familiak umeekin eta beste, hori da lan martxa.

Josune: Ez da erraza gurearen tamaina txikiko dendan elikagai sorta handia jartzea, baina gure helburua herrietako edozein elikagai dendaren parekoa izatea da. Egutero nabil borrokan gure jabeekin produktu bat edo beste lortzen saiatzeko, ze beraiek katalogo jakin bat dute, eta hortik kanpo beti mugak jartzen dituzte.

Ni neu igandetan etortzen naiz sarri, batez ere ogi egin berria duzuelako, eta jai egunetan bezero piloa etortzen da.

Josune: Igandeetako ikaragarria izaten da, batez ere ogiarekin. Labea daukagu, eta ogi piloa saltzen dugu. Ogi salmentak, berez, ez du irabazi handirik ematen, baina etortzen denak akaso beste zerbait ere erosten du, eta hor dago negozioa. Igande goizetan ogia egiteko zerbitzua indartzen dugu, eta bezeroa etxera gustura joaten bada, ba bueltatu egiten da (Andoaingo tren geltoki ondoko etxe multzoan bizi den bezero bat sartu da, eta hark, erosketak egitekoan Super Amaran ze martxa dagoen begiratu, eta askotan gasolindegiko dendara etortzen dela esaten du, ilara handiak ikusten baditu. Gero eta gauza gehiago dituztela dio, ardoa eta garagardoa batez ere).

Dagoeneko andoaindarren eta urnietarren izaera nolakoa den sumatuko zenuten. Zer diozue?

Josean: Bertako jendea oso jatorra da. Konfiantza hartzen duzu jende askorekin. Egun batean anbulantziako langileak etorri ziren, eta maskaratxo batzuk oparitu zizkiguten, beharra izango genuela pentsatzen zutelako. Beste bezero batek oroigarri bat egin digu... Orduan eta denbora

gehiago egin hemen, harremana indartu egiten da. Hasieran hotzagoa izan zen giroa, gero eza-gutzera eman gara. Hemen herritarrak irekiak direla esango nuke, erraz egin gara ezagun jendearen begietara.

Zein da sarrien erabiltzen duzun hizkuntza? Euskara edo gaztelania?

Josean: Euskara gaztelania baino gehiago erabiltzen dugu, ziur aski bezeroari esaten diogun gure lehen hitza beti euskaraz delako. Bezeroak ez badu ulertzen, gaztelaniara aldatu eta listo.

Koronavirusak anekdotaren bat sortuko zuela pentsatzen dut. Kontatzerik bai?

Josune: Badira pare bat aitona, etxe edo baserriren batetik etortzen direnak. Horietako bati osasunez justu samar dagoela sumatzen zaio, eta agerikoa da etxetik ihes egiteko etortzen direla, zerbait erosi eta ordu erdia edo gehiago ematen baitugu hitz eta pitz. Solasaldi beharrean dagoen jende dezentegia dago, eta guri ez zaigu ezer kostatzen elkarriketatxo bat ematea, azkarrago pasatzen dira lan orduak.

Josean: Nire ama Koronabirusa pasatakoa da, Zarauzko zahar etxean. Eta horren harira, hainbatekin aritu izan naiz birusaren inguruan mintzatzen. Koronabirusarekin gizakion arteko lotura, harremana, indartu egin dela esango nuke (beste bezero bat sartu da, langilea, enkarguren batetik etorri, eta gasolindegiko dendatik pasatzeko eskatu diotena, patata poltsa bat eta koka kola pare bat erosteko).

Oso gustura sumatzen zaizue gurean, laster akaso Urnietara edo Andoainera etorriko zarete bizitzera!

Josean: Batek daki, ezin aukera hori baztertu!



Aiurri eskuragarri:
Etxez etxeko harpidetza-sistema. Andoain urte osoko harpidetza-saria 39 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugarteandia.
idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu.
publizitatea@aiurri.eus
Banatzaleak: Mikel Arregi (Andoain), Axun Jauregi eta Rocio Arias (Urnietan).
Diseinua: Goienna Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

AIURRI ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EKOIZLEA: ERROITZ **ALIATUAK:** TOKIKOM

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOAINGO UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:

Gipuzkoako Foru Aldundia

ZIURTAGIRIA: **BABESLEAK:**

Bikam

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.

LEIZARAN

Gestión Inmobiliaria

Jai zoriontsuak igaro!

Kale Nagusia, 53-behea. ANDOAIN
Tel: 943 591 856
Tel: 619 661 323
e-mail: info@inmoleizaran.com
www.inmoleizaran.com

- Etxebizitzak
- Lokalak
- Alokairuak



Maite Sagaseta andoaindarra. AIURRI

“Haur eta nerabeen hitza entzun beharra dago”

MAITE SAGASETA OINHERRI HERRI HEZITZAILE TALDEKO KIDEA

Tesi argia defendatzen dute: Haurrak eta nerabeak ez dira subjektu pasiboak. Gizarte bizitzan oso kontutan hartu beharreko giza taldea da

Xabier Lasa ANDOAIN

Oinherrik deialdi berezia luza-tu zien familiei eta haurrei, apirilaren 26ko eguardian txalo zaparradan parte har zezaten. Hiru helburu zituen ekimenak: erakutsi duten jarreragatik haurrak zoriontzea, kalera ateratzeko eman zaien aukera ospatzea eta haurren aldeko eskubideen aldarrikapenak gizarteratzea. **Zer da Oinherri-Herri Hezitzaile taldea, eta zein helburu ditu?**

Haurren parte hartzean sinesten duen eta herri hezitzaileen ikus-

pegiaren alde lan egiten duen Euskal Herriko eragile multzo batek osatzen dugu. Herri hezitzaileen jardunean sinesten duten eta egunez egun handitzen ari den Euskal Herriko udalerrien sare batez osatua dago ere. Beraien artean elkarlotzen, abarasten eta garatzen diren zazpi kontzeptuetan oinarrituta aritzen gara: jolasa eta sormena ikasteko eta garatzeko berariazko tresnatzat dituen haurren kultura aitortu nahi dugu; hori oinarri hartuta, haurrei benetan

parte hartzeko eta erabakitzeke ahalmena emanaz; eurek erakitako aisia hezitzailea eta euskaldunaren bitartez, aniztasunean berdin eta parekide izanez eta ingurumen naturala eta ingurumen kulturala zainduz, komunitate-sarea eta auzolana indartuaz, eta pertsonen arteko harreman osasuntsu, justu eta asegarriak josiz.

14 urte bitarteko haurrek, aurretik ez zuten erabakirik, aurrerantzean eta egunero, ordubetez kalera ateratzeko aukera edukiko dute. Zein da zuen balorazioa?

Gobernu ordezkariak egin zuten lehenengo agerraldiaren ondoren galdetu izan bazenit, balorazioa ez zela oso positiboa aipatuko nizuke. Itxialdia hasi zen unetik aritu gara haur eta nerabeengan egoera honek eragingo zuenaz arduratuta lanean, eta argi izan dugu egoera ikusgarri egiteko beharra zegoela, haurrei entzun behar geniola, eurei ahotsa emanez. Bazirudien itxialdia malgutu egingo zitzaiela eta apirilaren 20an etorri zen asteleheneko zurrumbiltoa. Zentzugabeko erabakia zen haurrak helduekin batera bai baina, erosketetara, bankura eta botikara bakarrik joateko aukera izatea. Ez zuen denbora asko iraun erabaki horrek, ordea, eta zehaztasun askorik gabe, baina egun berean, beste erantzun bat jaso genuen.

Osteguneko iragarpen ofiziala jakin eta gero, berriz, positiboa da egiten dugun balorazioa. Haurren behar fisiko eta psikologikoen alde egiten duen erabakia da, eta hori positiboa izango da beti.

Halere, oraindik hutsune asko geratzen dira: nerabeen eskubidea ukatzea, adibidez.

Pedagogo, psikologo irakasleekin... hartu dutela erabakia diote. Azken egunetan gobernuak sortu duen nahasmena, nola ikusi duzue?

Erabaki hori nondik nora sortu den eta zein egoeratan eman den ulertzeko, itxialdiaz geroztik gai honen inguruan gobernuak izan duen jarrera erreparatu beharra dagoela uste dugu: bost astetan zehar haur eta nerabeak inongo unetan ez dituzte aipatu ere egin. Lehen egunean eskolak itxi zituzten (haurrek eta nerabeak izan ziren itxialdiaren neurriak nozitu zituzten lehendabizikoak). Ondoren, osasun profesionalen eskariz konfinamendu orokorra etorri zen, eta heldu eta haurrek etxean geratu behar izan genuen. Lantegi batzuk irekitzeko aukera jarri zuten ondoren, baina haurrak etxean jarraitu dute konfinatuta. Denbora tarte guzti horretan gai honekiko gizar-tean sortzen ari zen ezinegona handiagotuz joan da. Europako hainbat herrialdeetan hartzen ari ziren erabakien berri ere izan dugu. Guzti horrek gizar-tea mugitzea ekarri du.

Europa osoko konfinamendu araudirik gogorrena ari dira jasaten Espainiar estatuko 6,8 milioi haurretik gora.

Horren atzean haurrei eta nerabeei krisi honetan hasieran esleitu zitzaien papera egon daiteke: lehen asteetan batez ere behin baina gehiagotan entzun genuen haurrak birusaren transmisore garrantzitsuak zirela, eta horrek, haur eta heldu askorengan beldurra sortu zuen: haurrak “kriminalizatzeke” ekimena zirudien.

Eta horregatik, herriko eta hiriko kale eta txoko guztietatik bat-batean haurrak desagertu egin ziren. Baina adituek –gobernukoek ez dituztenak kontsultatu– diotenez, hori ez da zuzena. Izan ere haurrak, beste edozein pertsona bezala, helduok bezala, kutsatuta badaude transmitituko dute birusa, baina nonbait, gaur gaurkoz, ezin esan omen daiteke haurrek birusa helduek baina gehiago transmititzen dutenik.

Lehen aipatu bezala, Europako beste zenbait herrialdeetan haurrak eta nerabeak hasieratik hartu dituzte kontuan, eta helduontzat bezalaxe, beraientzat ere irteera baldintzak zehaztu dituzte. Hori bakarrik ez, Norvegiako lehen ministro den Erna Solberg-ek martxoaren 16an espresuki haurrentzako eta haurren hizkuntzara egokitutako prentsaurrekoa ere eman zuen. Haurtzaro eta Familia eta Hezkuntza ministroak ere bertan ziren haurren eta nerabeen galderei erantzuteko.

Estatu espainiarrean, berriz, erabakia haurrak etxean itxita izatearena izan da, ez besterik. Oraingoan ere, haurtzaroaren kulturaren inguruan ditugun gabeziek zer ikusia dutela garbi dugu Oinherri. Haurrei, oraingoan ere, ez diegu jaramonik egin. Haur eta nerabeen hitza entzun beharra dago jendarte bezala garatu nahi badugu. Haurrak herri eta hirien osaketan beste elementu bat gehiago dira helduon antzera, baina aste honetan kaleratu dugun manifestuan diogun bezalaxe, haurrak ikusgai bihurtu behar ditugu... Izan ere, haurrak eta nerabeak etorkizunerako prestatu beharreko pertsona bezala ikusten

"ITXIALDIAZ GEROZTIK GOBERNUAK HAURRAK ETA NERABEAK EZ DITU AIPATU ERE EGIN"

ditugu, oraindik osorik ez ba-leude bezala, oraindik baliorik ez balute bezala. Baina, haurrek sentitu egiten dute, pentsatu egiten dute eta horren arabera jokatzeko dute, helduok egiten dugun bide bera eginez. Haur eta nerabeek helduok bezalaxe beraien ardura eta betebeharrak dituzte, baina baita eskubideak ere! Eta oraingo honetan eskubide horiek ez dira errespetatu. Oinherrin diogun moduan, haurren gauzak egiteko, haurrek gauzak egitera pasa behar dugu zalantzarik gabe. Haur eta gazteak subjektu aktibo bezala kontutan hartzea dugu xede.

Guraso, hezitzaile eta pedagogoak haserre zaudete. Nola ikusi duzue eragingo zuela haurrei, fisikoki zein psikologikoki, sei astez etxean jasaten duten itxialdiak?

Haserre piztu zaigu, baina lehen aipatu dudun moduan, Oinherrin oso barneratuta dugun haurrei entzun, hitza eman, zer sentitzen duten entzun, eta abar luze bati berriz ere kasurik egin ez zaio-lako; finean, haurrak ere herri-tar moduan parte hartzeko aukera dutela aitortzeari. Haurrak "gogorak" direla entzun dugu eta kitto.

Itxialdiak izango duen eraginaz galdetuta, hilabete luze pasa honetan etxean gauden bitartean behin baino gehiago entzun dugu harrituta gaudela haurrak zein jarrera ona erakusten ari diren. Horrelakorik ez genuela espero, eta kasik guk helduok baina hobeto "jasaten" ari direla ere entzun diot zenbaiti. Harritu egiten gara, berriz ere haurrek duten balioaz benetan jabetzen ez garelako. Haurrei egoera gainontzekoi bezala etorri zaie, egoera azaldu egin diegu (agian hasieran kosta ere egingo zen) eta haurrek arduraz erantzun dute. Horretarako gai direlako. Hemen zehaztu beharra dugu oso egoera desberdinak bizi izan dituztela: ez da berdina hilabeteetako haurra, edota bost urte dituen; desberdina da berdegunea duen etxebizitza edukitzea, edo apenas argi izpirik sartzen ez zaien etxebizitza izatea...

Horrek ez du esan nahi beraien aldarrean, egunak joan ahala, itxialdiaren zama nabaritzen ez denik. Haserrealdiak eta negarrak ugaritu egin dira zenbaitzutan, lo egiteko garaian aldatzeki; berdintsu elikadura ohituretan... Mugimenduaren beharra nabari zaie batzuei...

Haurren hotsa errespetatzeko eskakizuna egin duzue, eta adierazpen edo manifestua plazaratu... Laburki, azalduko adierazpen hori?

Apirilaren 20an kaleratu genuen adierazpena, eta haurtzaroaren kulturaren defentsan idatzitako manifestua da, *Gora Haurtzaroa!* lemapean hain zuzen ere. Zortzi puntuz osatua dago eta bertan haurren kulturaren pean, herri hezitzaileon ikuspegitik azpimarratu nahi diren aldagaiak jasotzen dira. Aipatu moduan, helburua haurtzaroa bisibilizatzea da zentzu zabalean: haurrak ikusgai bihurtu beharra dago, haur eta nerabeak, helduok batera, gizarte osatzen duten subjektu aktiboak direlako, eta ondorioz, erabakien parte ere badirelako. Haurtzaroa eta nerabezaroa ez dira soilik etorkizuna, oraina ere badira, eta horrexegatik, kon-tuan izan behar dira eta eurei hitza eman. Entzun egin behar zaie.

Haur eta nerabeek herri eta hirietan kalea hartu behar dute, eta horretarako, haurrak kaleetan barrena ziurtasun osoz mugitzeko eta jolas egiteko baldintzak bermatu behar dira, herrietako komunitatea saretuz eta elkarren arteko harreman parekide eta osasuntsuak garatuz. Baina horrez gain, naturaren presentzia ere ezinbestekoa da haurtzaroa eta gaztaro osasuntsu baten garapenerako. Manifestuaren azken puntuan azpimarratzen dugun moduan, ezin dugu ahaztu haur eta nerabeen

eskola mundua dela eta mundu hori osatzen duten elementu guztietatik elikatzen direla; eskolatik, senideetatik, jolas libretik eta aisialditik, herri eta komunitatean duten parte hartzetik, eta abar.

Laburbilduz, ez dugu aukera hau galdu nahi eta etorkizunean, "normaltasunera" itzultzean, haur eta gazteak berriz ere aurreko itxialdira bueltatzea. Bide berriak sortu beharrean gaude beraien eskubideak bermatu ahal izateko, partaidetzaren bidez eta ahotsa emanez.

Manifestua irakurri eta bertara atxikitzearen gonbidapena luzatu nahi diegu eragile zein norbanakoei. Horretarako www.herrihezitzaile.eus helbidera jo eta manifestuan bertan dagoen atala bete besterik ez dago.

Joan zen igandean eguerdiko 12:00etan balkoira ateratzeko deialdia egin zenuten.

Bai, hala da. Alde batetik, argi eta garbi, orain arte etxetik atara gabe egon diren haur eta gazteei adierazi duten ardura-gatik eta izan duten jarreragatik, aitormena egin behar zaiela uste dugu eta zoriondu egin nahi genituen. Aurrekoagatik ez ezik, horrenbeste egun etxean igaro ostean ordu batez bada ere kalera irteteko aukera dutelako, ospakizun kutsu bat eman nahiko genion deialdiari. Eta azkenik, haurtzaroaren kultura azpimarratzeko eta balioan jartzeko eta honen aldeko aldarrikapena egiteko baliatu nahiko genuke igandekoa.

"HARRITU EGITEN GARA, HAURREK DUTEN BALIOAZ BENETAN JABETZEN EZ GARELAKO"

"GAINONTZEKOEI BEZALA ETORRI ZAIE EGOERA. AZALPENAK EMANDA, ARDURAZ ERANTZUN DUTE"



Oier eta Izaroren haurrak jolasean, Zubitxo plazan. AIURRI

Kalera, asteak etxean egon eta gero

Igandean, bereziki eguerdi aldera, nabarmena zen herrikideen joan-etorria. Kaleetan haurrak eta helduak ikustean, normaltasunaren irudia berreskuratzen hasi zen gizartearen. Eta zer topatu zuten haurrek, kalera irten zirenean? Ibiltzeko espazio irekia. Eta horrez gain, parkeak itxita, ilarak okindegietan, tabernak eta jatetxeak itxita... eta pertsonen arteko distantzia. Distantzia fisikoa. Horixe izango da egun hauetako "normaltasun berria".

Tokiko merkataritza, kirol eta aisialdi guneak eta ikasturteko martxa berreskuratu arte asteak pasako dira. Baina kalera ateratzea bada zerbait. Larunbatean hasita, kirola eta ariketa fisikoa egiteko baimena emango dute.

Udal agintaritzatik iritsitako oharrei jaramon egin behar zaie, eta oraindik ere zuhur jokatzeko garaia da. Prebentzio neurriekin zorrotz jokatu beharra dago.



Bi haur hizketan, maskarilla jantzita, gurasoak gertu daudela. AIURRI



andoaINDARRA
euskaraz

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA



Azkorteko erromeria maiatzaren 3an egiten da, Santa Krutz egunarekin batera. AIURRI

Ospakizunik gabeko hilabetea Urnietan

Errotuta dagoen ospakizuna izan da Santa Krutz jaia, mendeetan zehar. Azkorte ermita Ergoien auzoan kokatuta egon arren, hiriguneko nahiz Oztaran, Lategi eta Goiburuko auzoetako biztanleek ere gogoan hartu dute beti aparteko egun hori

Erredakzioa URNIETA

Izan asteguna, izan asteburua, maiatzaren 3a urnietar askok ospatu izan duten eguna da. Eta zoritxarrez, elorria bedeinkatzeko erritua ere ezingo da Azkorten berritu. Izan ere, sasoi honetan elorri zuria loretan izaten da, eta Urnietako baserritarrek zuhaitz honen adar bat eramateko ohitura izan dute beti, mezan bedeinkatzeko. Babarruna, artoa... baserritarrentzat haziak ereiteko sasoi da. Elorri adarraren alderik lodienean ebaki txiki bat eginez, Erramu Igandean bedeinkatutako erramuaren adar zati bat itsasten diote. Kandelaria egunean bedeinkatutako kandelaren argizari ttantta batzuekin lagunduta, tradizioak agintzen duen bezala. Erramu hori, ondoren, haziak ereindako sororen lau izkinetan ipintzen dute, uzta hona izan dezaten.

Erritu horrenik gabe ere, aurtengo uztarekiko ez dugu itxaropenik galdu behar.

Jai Batzordeari eskertza

Urnietako Udalak eskertza adierazi zien Jai Batzordea osatzen duten kide guztiei, "festa horietako ekintzak prestatzen burutu duten lan guztiarengatik. Egoera hau denon artean gainditzeko dugunean izango dugu berriro elkartzeko eta jaiak aurrera eramateko aukera, baina orain, lehenasuna beste bat da".

Antia literatura lehiaketarekin, bestalde, aurrera jarraituko dute. Baina aurtengoan ez da jendaurreko sari banaketa ekitaldirik izango.



Urnietako
udala

Ekitaldiz beteriko hilabetea



Bertso saioa eta hamaiketakoa Lekaio kultur etxean. AIURRI

Baserritarren eguna Tradizio luzea duen ekitaldia da. San Isidro egunez, meza amaitu ostean, baserritarrei bertso saioa eta hamaiketakoa eskaintzen zaie. Egun handia da herrikide askorentzat. Aurtengoan, ordea, bakoitzak bere etxean ospatuko du.



Egape ikastolako jolastoki estalian egin ohi da saioa. AIURRI

Pailazoen emanaldia Urteak dira Aiurri astekariak saioen emanaldia antolatzen duela Urnietan. Udalaren eta Egaperen laguntza estimatzekoa da, eta saiora herriko eta eskualdeko haurrak hurbiltzen dira. Udaberri honetan ezinezkoa izango da.



Gazte askoren gogoia zapuztuta geratu da, Koronabirusagatik. AIURRI

Gazte festak Maiatzeko azken asteburuan ospakizun polita egiten da Urnietan, herriko gazte askoren parte hartzea izatea lortzen duena. Gazte afaria, dantza saioa, kalejirak eta erraldoi eta buruhandiak... Gaurkoz ez dira jaiak antolatzeko baldintzak betetzen.

Xabier Lasa ANDOAIN

Goikoplazan kokatu zen azoka, eta soilik elikagaien eta barazkien salmentarako postuak jarri ziren bertan, goizeko 09:00etan hasi eta eguerdiko 13:00ak bitarte.

Era horretan, saltzaile batzuk salmenta kalean egiteko lehen aukera izan zuten martxoaren 14az geroztik; koronabirusaren hondamendiak autonomo gisa eragin dien krisi ekonomikoari aurre egiteko arnasaldi txikia izan zen larunbateko salmenta.

Udalak apirilaren 18an aditzera eman zuenez, merkatua partzialki berrezarri zen berriro, "bereziki elikagaien ekoizle eta saltzaileentzat bideratuta". Hori bai, "modu ordenatuan eta osasun-berme guztietan".

Hamabost postu inguru aurki zitezkeen larunbatean, Kontzejupean eta Goikoplazan barreiatuta. Erosleek legeak ezarritako distantzia fisikoa bete behar izan zuten, erosketa egiteko garaian. Neurriak betearazteko goiz osoan zehar jarraipen eta zaintza lana egiten aritu zen Udaltzaingoa.

Udalak hurrengo egunetan, erabaki berririk hartu ezean, merkatua soilik larunbatetan ospatzen jarraitzeko iragarpena egin du. Larunbatean ikusita-koagatik, erosleak eta saltzaileak gustura zeuden.



Elikagaiak, barazkiak eta fruta erosteko saltokia Goikoplazan. AIURRI

Azoka berriro martxan, Goikoplazan

Azoka berriro antolatu zen larunbatean, konfinamendurako dekretua ezarri zenez gerotik sei asteetan zehar Andoaingo Udalak etetea erabaki eta gero. Makaldegira joateko ohitura ohi duen bezero ugari hurbildu zen Goikoplazara


ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Pello Lopez
Zure eguna mundiala izateko sormena martxan jartzea baino ez duzu, eta zuri halakorik ez zaizu falta! Etxekoak.



URNIETA
Alain
Zorionak Alain, apirilaren 28an 13 urte bete dituzulako, muxuak! Etxekoak.



ANDOAIN
Leire Rekalde
Nahiz eta aurrean etxean ospatzea tokatzen zaigun, segi horrela, irribarretsu, beti bezala. Muxu handi bat etxekoaren partetik



ANDOAIN
Juanjo Elordi
Apirilaren 27an, 5 hamarkada bete zenituen, eta guk, etxean, goxo, hirurok ospatu genuen. Maite zaitugu, aitaxo!



ANDOAIN
Ane
Urte askuan Ane, ondo pasa maiatzaren 3a nahiz eta egoera berezi samarrean izan. Santakruzak datorren urterako!



ANDOAIN
Nahia eta Mikel
Apirilaren 28an Nahia Agudok 16 urte beteko ditu. Maiatzaren 6an, berriz, Mikelek 11 urte beteko ditu. Zorionak bioi eta muxu handiak etxeko guztien partetik.

Inkesta



Juanjo Izaguirre, udaltzaina. AIURRI

06:00tan segurtasun neurriak markatzera etorri gara, eta goiz guztian hemendik ibiltzea egokitu zaigu. Baten bati gogoratu behar izan zaio erosketak egitera etorri litekeela, ez saltzailearekin tertulian aritzera. Baina orohar, esan behar da gehien-gehienak errespetuz jokatzeko ari direla; ni, neu harrituta nago zein zintzo dabilzan, salbuspenen bat edo beste kenduta, kalera ateratzeko aukera baliatzen duena tranpatxo egiteko, alegia".



Luis Izaguirre, landare saltzailea. AIURRI

"27 bat urte daramatzat Andoaingo postuarekin. Asteotan Hernaniko azoka bakarrik geneukan irekita; orain Andoaingoa ere bai, eta albiste pozgarria da guretzat; izan ere, udaberrian urte osoko %70a saltzen dugu. Tomatea, piperra, porrua, kalabaza, kalabazina, tipula, tipulina... urte sasoiak da oraintxe. Betiko bezeroak 08:00etarako hasi zaizkit hurbiltzen. Ikusten da jendea gogoz dagoela baratza astintzeko".



Juan Carlos Zubieta, eroslea. AIURRI

Martxoaren 13z geroztik kalera atera gabe nengoan. Oso gogorra egiten ari zait itxialdia, oso! Faltan dauzkat Leitzarano edo kiroldegi aldeko paseoa, eta lagunekin berriketak eta pintxo jateak ostegun eta larunbatetan! Poza ematen didate umeek, orain libre ibiliko baitira kalean. 1918an 50-100 miloi hil omen ziren munduan eta krisiak bi urteko iraupena izan omen zuen... Luze doala dirudi hau dena... Denok bat eginda, etorriko al dira egun hobeak!



Alberto Rodriguez, ardo saltzailea.

Konfinamendua indarrean jarri zenetik, nire lehen plaza da gaurkoa. Gainerakoan, lagun eta ezagunek edariekin egiten dizkidaten eskaerei esker ari zait zeozer mugitzen negoziola. Badirudi gerra bakteriologikoaren ondorioa dela sufritzen ari garena, gizarteko ahulenak izorratzeko sortua. Bankuen edo saltoki handien atzean dagoen kapitalaren mesedetan, eta behekoen kaltetan. Gu bezalako autonomoak izurrazteko!

pottokopuericultura@gmail.com



enkarguak jasotzen ditugu



615
728
288

AIURRIKO HARPIDETZA KANPAINA BEREZIA

25 €

Urte osoan zure pantailan agertzen gara

Bide beretik jarraitzeko harpidedun gehiagoren beharra dugu

Izan zaitez harpidedun, eta pantailan ikusten dituzun albiste,
bideo eta argazkiez gain, Aiurri aldizkaria eta astekaria etxeraino eramango dizkizugu

Maiatza-abendua bitarteko eskaintza honen kostua 25 eurokoa baino ez da

BAT EGIN GUREKIN, BAT EGIN TOKIKO PRENTSAREKIN

AIURRI, ESKUALDEKO NORTASUN HITZAK



Harpidetza egiteko sar zaitez Aiurri.eus webgunean: <https://aiurri.eus/bazkidetu/>

***OHARRA:** Dagoeneko harpideduna bazara ez duzu ezer egin behar. Kanpaina hau HARPIDEDUN EZ DIRENEI zuzenduta dago

